

FELIPE LIZASO EIZMENDI
SAN SEBASTIAN

1975gn Azaroak 12

PL. DE ZUBIETA, 2-7.^o
TELEFONO 42 32 42

PIERRE LAFITTE jauna
Ustaritz

Ene jaun agurgarria, agur:

Aurrekoak bidali ondoren aztarrika ibilia nauzu, ta poz-pozik dasaikezut, zerbait aurkitua nauzula.

Zure irakaspenei jarraituz, or aurkitu dut, Ben J. Mus eta Preben Daiström'en liburuan, prantseset "épinette" izanik, "Pungitius pungitius"(L) deritzana; esp) espinosillo; ing) Nine-spined stickleback; ale) Zwergstichling; eta cat) Pungoset, delakoa.

Zazpi zentimetro ditzake. Ur gezatan bizi denarren, kresaltsuetara ere, noizpeinka johaten da. Udaberrian ernari. Ibai-landareetan kokatzen du, ostroekin gertutako kabiak. Lehen urtea bete ondoren, anizketarako gai izaten da. Zooplanktonez gainera, urpeko mamutx, besteen arraultza ta eltxarrak irentsiaz elikatzen da.

Orra, gure arraintxo. Bainha bera ote dugu, lehen zaharrak AMANDIL/ABANDIL ze- ritzatena?... Bizkar gainean, iru edo zortzi arantza ote?... Ez ote, aundixe-agoa den "Epinoche" ("gasterosteus aculeatus") gure arraintxo?...

Ez bai dirudi, oek diotenez, gure errial-



dean lehenengorik. Ugaldua, berriz, surreko marrezkian agertzen denez, bigarrena.

XIXTA ori, esan bezala, "Gasterosteus aculeatus" dugu. Prantsesez, Epinoche; esp) Espinoso; it.) Spinarello; ing) Three-spined strickle-back; ale) Dreistachliger Stichling; cat) Punxós.

"Ibaian jaio ta itsasoratzen den arrain txikerra: 5-8 zentimetro baizik ez ditu. Itsasoan dabiltenak berriz, amaika gahinez, iru urterekin. Bizkar gaineko iru arantza bakanak, ditu bereizgarri. Oen ondoren, atzeko eskarda belaska. Belaska baita ere, uzki-egatsa. Galtzarrekoak, luzexka biribilduak, ta sabelpekoak murritz.

Buru mutur zorrotza, barail ertenarekin. Ondoren, ta isatsa bitartean, ezurdun xaflak. Iru mota berezi ditezke: 1)-luzeera osoan dituana ("trachurus"); 2)- gorputzean baizik ez dituana ("semiarmatus") eta, aurrekaldean besterik ez dituana (-3 "leinurus"). Oraintsu era-bakia da, beste bien nahasketa dela bigarrena.

Lintzura, putzuzulo, erreka ta edozein tokietan bizi direnak batzuek; bertan-goxo dagitenak. Sarda izugarriak osaturik, arantz-onuzka dabiltenak, bestea. Negutea itsasoan egin, ta udaberrian ibaian gora dijoga ugalketara. Apirilean errungo ditu eun arraultza emeak.

Ondarretan egindako sakongunean gertuko du arrak, berebiziko kabi polita. Giltzurdinetako ixurkiaz landare ostroak itsasi ta baturik, eginen du kabi ori. Emea deitu ta sartu araziaz, arraultzak ipiniko ditu. Estali ondoren, lehena uxatu ta bestea erakarriko du. Onela, behin eta berriz, zortzi-amar igaro bitartean. 20-27 egun barru jaiko dira eltxarrak, ta ingurutik aldendu gabe ibili, apur bat azi bitartean".

FELIPE LIZASO EIZMENDI
SAN SEBASTIAN

PL. DE ZUBIETA, 2-7.^o
TELEFONO 42 32 42

Obeki erabakitzeko, ona emen, bat eta bestearen marrezkiak:



Baita kabiak ere. Zein ote, ba, gure AMANDIL-ABANDIL = XIXTA ?...
Anitz esker guztiakatik, ta Eguberria laister dugunez,
Jainko-Aurtxoak dezaizula ZORION! Laister arte, adiskide,

(Signature)

FELIPE LIZASO EIZMENDI
SAN SEBASTIAN

1975gn Azaroak 20

PL. DE ZUBIETA, 2-7.^o
TELEFONO 423242

PIERRE LAFITTE j.
U s t a r i t z

Ene jaun gurgaria:

Barkatuko ahal dirazu, ene arazoa garbitu nahirik zugana jotzea. Azkeneko urte biotan Bugros-en nintzelarik, aŕainen kontuekin ibilia nauzu. Ta, besteen artean, euskal aŕain izenen bila zure "Lexique Fran ais-Basque" ere, arakatua dut.


Oraintxe, ta oŕetarako izan ditudan laguntzakin, gehienak garbituak ditut, eta euskaraz beren xehetasunak ipini. Baina, oraindik, banakaren batzuk gelditzen zaizkit, ta oen artean, zuk aipatzet duzun

BASERRENKU = Spaat. Eskura ditudan frantses-iztegiak arakatu ditudan aŕen, ezin erabaki zein den aŕain ori. Bere laterazko jakintza izena eman ahal bazezina,,,

Zure iztegian agertzen ez direni beste batzuk ere ba ditut:
AMANDIL (L) P.Landhe, arkaitz arteko aŕaintxoa
KORROMIO (Oih.)(Azk.)(P.Landhe) aŕain mota
PLATEO (L-ust) (P.Landhe)(Azk.) ibai-aŕaina
APEX (L) (P.Landhe)(Azk) arrainaren gantza osakai bezala erabiltzen /da.

Ondarua'n ere ba da, zer danik ez dakigun MERTIKARRATN.
Anzo nire itsu-mutilak, Merikuarain ote den susmoa eman dit...
Ba ote zerikusirik, osakai bezala olioia ematen duen Apex'ekin?

Auñez, ene eskařik sutsuenak opaldurik, zurearen itxaropenean
gelditzen nauzu, adiskide,



A handwritten signature, possibly 'Pascual', is enclosed within a circle. A horizontal line extends from the bottom right of the circle across the page.

FELIPE LIZASO EIZMENDI
SAN SEBASTIAN

1975gn Azaroak 27

PL. DE ZUBIETA, 2-7.^o
TELEFONO 423242

PIERRE LAFITTE jauna
Ustaritz

Agur eta ohore, euskaltzain jaunari:

Egarri denak, iturrira jo behar.

Ta, zu bezalako adiskideak aurkitzean, zorioneko nahi ta ez. Eskarrik asko!. Bihotz-bihotzez damazkitzut nire eskarrik kartsuenak.

Gaurtik ba dakit, BASERRENKA itsasarraina, lehen mugaturik nuen KOKARTA bera dela. Emen bidaltzen dizut, arentzat gerturik nuen txartelaren kopia bat. Zer derizkiotzu?... Atsegin izango lizaiet zure iritzia jakinazaztea.

Ongi mugaturik ditugula uste dut, "Clupeidos" taldekoak.
"Clupea harengus" = SARDINTZARRA = Arenque

arenka (d'Urt)

Txardin igarra (S.Baroja)

Sandinzar (G) P.Urkizu

Sardiña igarra (Larramendi)

Ijitu sardiña (V.L.)

"Clupea sprattus" = KOKARTA (S.Baroja)(V.L.)
baserrenka (A.T.-P.Laf.)

"Clupea pilchardus" = SARDIÑA = Sardina

Xardiña (Azkue, Landhe)

Txardina (A.T.-P.Laf., Azkue)

Parritxa (V.L.)

"Clupea alosa" = KOLAKA (V.L.; A.T.-P.Laf)
alatxa (S.Baroja)

"Clupea finta" = ASTOUNA (V.L.)
Gatta (V.L. - A.T.-P.Laf.)


Oraindik ere ba ditut, Iandhe'ren iztegitik jasotako izenak,
argitasun paltan. Galdu ta utzi beharrean, zeintzuk diren esan ahal
ba zenizkida... Otxek dira:

AMANDIL ="petit poisson qui vit dans les creux de rochers"

KORROMIO = (Oih.) "espèce de poisson"

PLATEO = "poisson de rivière"

Berriz ere anitz esker, ta maitekiro agurtuaz zurearen zain
gelditzen da, adiskide,

A handwritten signature in black ink, enclosed in a circle. The signature appears to read "Vicente Baroja".